

Pierre Broussain
Hazparne, Lapurdi (1860)

Aurkibidea

Biografia

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. 53 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Medikua izateaz gainera, Hazparneko alkate ere izan zen. Gurasoak Hazparnen jaiok ziren. Euskalkia: mendebaldeko behe-nafarrera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.185

Zintak

HAZ-005

- **Proiektua:** Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Data:** 1913-07-25
- **Iraupena:** 3 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Emalea:** OAW

Pasarteak

1. Euskararen egoera

- Erref:** HAZ-005/001
- Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:04

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

1913. urtean ere bazuten euskararekiko ardura. Pasarte honetan mugako bi aldeetan euskarak duen egoeraz eta galtzeko duen arriskuaz mintzo da. Badaude beraien arbasoen hizkuntza ez dakiten haurrak; eskoletan ikasteko aukera izanez gero ez dela horrelakorik gertatuko dio, besteak beste.

Transkripzioa

Vienako jaun batek galdeinik, gootik erraiten tut zonbeit hitz Azparneko eskuara garbiz. Eskuara aiphatzen duanaz geoz enitake eon erran gaa galtzeko irriskuan dela, Espainiako Eskualherrietan beeziki. Nafarroan eta Bizkaian lehen eskuaraz mintzo ziin herri anhitz oai españolez mintzo dia. Frantziako Eskualherrietan nahiz gue mintzaia zaharra oai artio aski azkar den halee zonbeit lekutan galtzen aai da, hala nola Endaian, Donibane-Ziburun, Donapaleun eta Maulen. Hiri horiitan badia haur frango, aitamak eskualdunak tiuztenak eta eskuara eztakitenak. Gue arbasuen mintzaia eskoletan iakats balezate, elitake holakooik gerta. Eskoletan eskuara ikasiz gue hurrek amodio gehioo balukete been aitamen mintzaiaandako eta been burüak ohora litzazkete gue arbasuak bezala mintzatuz. Eskolaz kanpo badia ene arabera bi gauza eskuara gal aazten dutenak, lehenik jende handien etsanplua eta geo gue mintzaiaan pobrezia. Jende xehia beti jende handiaai jarraikitzen zako ala beztitzeko maneran, ala mintzatzeko maneran. Eskualherriko jende handiek miiku, aphez, notari, abokat, aspaldian eskuara utzi'ute frantsesez edo españolez artzeko eta hek bezala iteko jende xehiak ee ai dia frantsesez edo espariolez mintzatzan, ahal dutenian. Oxtian erran dut gue mintzaia pobria dela. Ezta estonatzeko zeen eta oai diila mila urthe bezala eona bita batee abaastu gabe. Alta baa biziki errex litake eskuarai emaitia eskas ditiin hitz guziak. Hitz berriak aise in ditazke, erruak eskuaran berian hartuz frantsesaai eta españolai batee maileatu gabe.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-05-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com